



ZARENA MAITE
DUGU. EZ EGITEN
DUZUNA!

0. AZALA

Iritsi zaigu 61. zenbakia. Oraingo honetan, besteek guri buruz zer pentsatzen duten landuko dugu. Ea bada, has gaitezen aldizkaria lantzen. Zer deritzozue azala azkenerako uzten badugu? Hau da, aldizkaria irakurri ondoren, haurrari honako proposamen hau egingo diozu:

- Galdetu haurrari: “Zein izenburu jarriko zenioke aldizkariari?
- Marraztu ezazue orri zuri batean, aldizkariari jarriko zenioketen marrazkia, irudia...
- Amaitzeko, izenburu bat jarri, eta begiratu aldizkariko azalari!

OSO EZBERDINA ATERA ZAIZUE?

2. AURKIBIDEA

Aurkibidearen atala zertxobait arakatzeko tartetxoa hartuko dugu; hor, izan ere, hainbat argibide aurkituko dituzu, aldizkariaren nondik norakoa antzemateko eta ulertzeko. Irakur ezazue lasai-lasai laburpena, banaka, ahots gora... nahi duzuen bezala. Laburpena irakurri ondoren, galdera hau egin dezakezue: zure ustez, garrantzitsua da besteek zer pentsatzen duten zuri buruz, pertsona gisa?

Jarraian, aldizkariarekin jarraitzeko aurkibidean dugun zerrendara joko dugu, eta, hor, honako hau proposatzen dugu:

- Agertzen diren zenbakiak orri batean idatzi, banan-banan, eta zatitxo txikietan moztu eta tolestu.



ZARENA MAITE
DUGU. EZ EGITEN
DUZUNA!

- Tolestutako zati horiek nahasi egingo ditugu, eta, aldizkariko beste atal bat irakurri behar duzuen bakoitzean, orritxo zatia aterako duzue, zoriz.

3. PUPU ETA LORE

Jarduera bikaina eta aberatsa da irakurtzen ari garena gure ingurukoekin konpartitzea, eta elkar gehiago ezagutzeko balio digu. Pupu eta Loren atalera iristean:

- Orriaren kopia bat aterako duzue.
- Ondoren, atal edo laukitxoak moztuko ditugu.
- Jarraian, haurrari honako hau esango diozu: “Begira Pupu eta Loreren komikia nola agertu den?” (Zati moztuak erakutsi haurrari). “Lagunduko didazu ondo jartzen?”.
- Ondoren, komikia ordenatuko duzue.
- Amaitzeko, irakurri komikia, eta, irakurri bitartean, egin geldialdi batzuk, eta egin galdera batzuk haurrari, adibidez: ”Zuk zer egingo zenuke?”.

4. PIRRITX , PORROTX ETA MARIMOTOTS

Jolastu gaitezen apur bat letrekin:

- Galdetu iezaiozu haurrari ea jolasteko prest dagoen. Horrela, haurraren irrika piztuko dugu.
- Letrak aldatzean datza jolasa: hau da, irakurtzen ari zareten bitartean, zenbait letra beste letra batekin aldatu beharko duzue, eta aldaketa horrekin jabetu beharko du entzuten ari denak.
- Beraz, irakurketa konpartitu bat beharko duzue.



ZARENA MAITE
DUGU. EZ EGITEN
DUZUNA!

- Amaitzeko, galderatxo bat landu dezakezue istorioa hobeto ulertzeko: zer gertatu zaio Porrotxi?

5. TIRITAXO

Tiritatxoren aholkuak irakurri aurretik, irudiari erreparatzeko proposatzen dizuegu:

- Irudia aurrean duzuelarik, eta ondoan orritxo bat hartuta, mihiaren “sekretutxoak” sortuz joango zarete; ziur gaude antzeko sekretuak izango direla. Hau da, mihia zer den eta mihiak zertarako balio duen zerrendatzen saiatu behar duzue.
- Amaitzean, Tiritatxoren aholkuak irakur itzazue, lasai-lasai, eta zuek sortutakoekin alderatu.

6. MARIMATRAKAK

Marimatraken istorioa irakurketa korapilatsu bilaka daiteke, haurrak irakurketarako duen gaitasunaren arabera; hala, haurrak kontakizuna ulertu ezin badu, lagundu egingo diogu:

- Hori dela eta, irakurketa konpartitu bat egitea proposatzen dugu.
- Zer iruditzen zaizue irakurketarako gunea jolastoki bat bada?
- Interesgarria litzateke irakurketarako lekuak aldatuz joatea; erakutsi haurrari irakurketa hainbat lekutan egin daitekeela.



ZARENA MAITE
DUGU. EZ EGITEN
DUZUNA!

7. BARATZE URBANOA

Hau da hau informazio festa! Jarraian, orri zuritxo bat hartuko dugu, eta baratze urbanoan agertzen zaiguna idatziko, txukun-txukun:

- Lehenik eta behin, utzi haurrari nahi duen bezala irakurtzen.
- Ondoren, orri zuri batean, izenburua idatzi eta koloreztatu dugu.
- Jarraian, zikloak idatziko ditugu, banan-banan.
- Amaitzeko, gure inguruko norbaiti azalduko diogu orrian idatzi duguna.

8. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Estali izenburuak, eta hasi irakurtzen olerkitxoak. Galdetu haurrari ea ulertzen ari den edo ez. Guztiak irakurri ondoren, utzi haurrari bere kabuz jartzen izenburuak olerki bakoitzaren gainean jartzen. Ea asmatzen dituen!

9. LAGUN

Irakur ezazue komikia, lasai-lasai; eta, jarraian, asmakizunekin jolastuko gara. Komikian zehar ageri diren hitz edo irudietan oinarriturik, asmatu itzazue asmakizun batzuk, hemen adibide bat:

- Kolore biziko gauza borobil baten bila gabiltza; ia komikiko zati guztietan ageri da.
- ...



ZARENA MAITE
DUGU. EZ EGITEN
DUZUNA!

Jolas honek, modu dibertigarrian, komikiari begiratu bat egiten lagunduko du.

10. EUSKAL HERRIKO ANIMALIAK

Aste buruan ibilalditxo interesgarri bat egiteko prest? Oraingo honetan, Euskal Herriko animalien artean, barraskiloa azaldu zaigu, ia gehienontzat ezezaguna den animalia. Haurrari honako hau esatea proposatzen dizuegu:

- “Barraskiloaren nondik norakoak irakurri ondoren, sekretutxo bat kontatuko dizut, ados? Baina, horretarako, animalia honi buruzko hainbat galdera erantzun beharko ditugu! Ados?”

Galdera zuek sortzea proposatzen dugu; izan ere, aurrean dugun haurraren adina eta gaitasuna guztiz ezberdinak dira. Eta haurrari kontatuko diozun sekretua, berriz, asteburuan mendira egingo duzuen ibilaldia izango da! ANIMATU!

11. FILOSOFO TXIKIAK

Komikia irakurri ondoren, hor ageri diren hainbat adierazpeni buruzko hausnarketa bat bideratu nahi dugu oraingoan.

- Lehendabizi, komikia irakurriko dugu, pertsonaia bakoitzari ahots ezberdin bat jarriz.
- Amaitzeko, honako adierazpen hauei buruz pentsatzen duguna konpartituko dugu:
 - Zergatik jaio gara gu, eta ez beste bat?
 - Ume guztiak berdinak dira?
 - ...



ZARENA MAITE
DUGU. EZ EGITEN
DUZUNA!

12. MARTIN BERTSO

Martin Bertsoren komikitik, ipuin bat sortzera animatzen zarete? Irakur ezazue komikia, nahi duzuen bezala: konpartituta, bakarrik... Ondoren, irudimena landuz, ipuin bat sortuko duzue; haurrari baliagarri egingo zaio irudiei erreparatzea ipuina sortzeko orduan.

13. MARIKALANBRE

Esperimentuak interesgarria eta erakargarriak dira guretzat zein gure haurrentzat. Beraz, irakurri bion artean, eta, jarraian, esperimentatu zuek ere. Gure haurrentzat, garrantzitsua izango da, gauza ezberdinak esperimentatzea; izan ere, horrela, haien interesa eta motibazioa pizten ditugu.

14. LARGABISTA

Jarraian, detektibe lanak egiteko beta eskainiko dizuegu:

- Lehenik eta behin, komikia irakurri.
- Detektibe lanak eginez, protagonistaren izena jarriko duzue orri zuri batean, baina ez diozue inortxori erakutsiko.
- Amaitzeko, “bat, bi, hiru” esan, eta bakoitzak idatzi duena erakutsi beharko du.



ZARENA MAITE
DUGU. EZ EGITEN
DUZUNA!

15. HAUR KANTAK

Jarraitu dezagun jolasean, estali kantu guztia! Eta beste orritxo batzuetan eta zatitxo txikietan idatzita jarriko ditugu. Jarraian, haurrari denbora utziko diogu irudiei erreparatzeko (5 minutu) . Ondoren, esaldiak bere lekuan jartzen hasiko zarete, eta, amaitzean, kantua goitik behera irakurri eta, nola ez, kantatuko duzue.

16. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Komikian murgiltzeko, honako hau dugu proposamen gisara:

- Haurraren txanda izango da orain!
 - Haurrak erabakiko du nola gozatu irakurketarekin; lagundu irudimena lantzen.
 - Esaiozu haurrari zuk ere irakurketarekin gozatzea nahi duzula, eta ea zer proposatzen dizun.
- Ziur gaude txundituta geldituko zarela, haurrak izango duen erantzunaz.